



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko urriaren 18a

119. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Tuterako Udalarekiko hitzarmenean jasotzen den Fernando Remacha kontserbatorioaren gaineko txostenari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (2. or.).
- Galdera, Nafarroan banku publiko bat sortzeari buruzko txosten bat egiteko lehiaketari buruzkoa. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (2. or.).
- Galdera, itunekin, deribazioekin eta beste zentro batzuetako osasun-laguntzarekin zerikusia duten kontusailen multzoari dagokionez 2016ko itxiera dela-eta dagoen aurreikuspenari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (3. or.).
- Galdera, gure erkidegoan zinemagintza-industria bultzatze aldera Nafarroako Gobernua egiten ari den urratsei buruzkoa. Consuelo Satrustegui Marturet andreak egin du (3. or.).
- Galdera, eskola-bide seguruen programei buruzkoa. Miren Aranoa Astigarraga andreak egin du (4. or.).
- Galdera, bakearen, bizikidetzaren eta arau eta legeekiko errespetuaren kultura bat hedatze aldera hartu beharreko neurrii buruzkoa. María Victoria Chivite Navascués andreak egin du (5. or.).
- Galdera, Nafarroako funtzionarioen soldata igotzeari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, jakitekoa zer jarduketa egin dituen edo egiteko asmoa duen Nafarroako Gobernuak, Volkswagen Navarra, S.A. enpresak hemendik aurrera kontratazio prozedura bat izan dezan, publikoa eta irekia, zeinetan nafar guztiek aukera-berdintasuna izanen duten kontratatuak izaterakoan. Carlos Couso Chamorro jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Hitzarmen Ekonomikoaren negoziatioari dagokionez Nafarroako Gobernuak hartu beharreko neurrii buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Nafarroako Hego Erriberaren hornidurarako eta ureztaketarako aukeren gaineko azterlanari buruzkoa. María Luisa de Simón Caballero andreak egin du (7. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Tuterako Udalarekiko hitzarmenean jasotzen den Fernando Remacha kontserbatorioaren gaineko txostenari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Tuterako Udalarekiko hitzarmenean jasotzen den Fernando Remacha kontserbatorioaren gaineko txostenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

– Departamentuak noiz edukiko du prest “Fernando Remacha” Kontserbatorioari buruzko txostena, Tuterako Udalarekin sinatutako hitzarmenak jasotzen duena?

– Udalarekin hitzartuta al dauka 2017rako finantzaketa? Zenbatean?

Corellan, 2016ko urriaren 7an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Nafarroan banku publiko bat sortzeari buruzko txosten bat egiteko lehiaketari buruzkoa.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroan banku publiko bat sortzeari buruzko txosten bat egiteko lehiaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkartearen eledun Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuo lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer irizpide baliatu duzu hutsik deklaratzeko Nafarroan banku publiko bat sortzeari buruzko txosten bat egiteko lehiaketa, AFI Consultores-i aurre-esleitu ondoren?

Iruñean, 2016ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, itunekin, deribazioekin eta beste zentro batzuetako osasun-laguntzarekin zerikusia duten kontusailen multzoari dagokionez 2016ko itxiera dela-eta dagoen aurreikuspenari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, itunekin, deribazioekin eta beste zentro batzuetako osasun-laguntzarekin zerikusia duten kontusailen multzoari dagokionez 2016ko itxiera dela-eta dagoen aurreikuspenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zein da 2016ko itxiera-aurreikuspena itunekin, deribazioekin eta beste zentro batzuetako osasun-laguntzarekin zerikusia duten kontusailen multzoari dagokionez? Baldin eta, aginte-koadroek iradokitzen duten legez, desbideratzea handi bat egon badaiteke, zeintzuk dira arrazoiak?

Iruñean, 2016ko urriaren 11n

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, gure erkidegoan zinemagintza-industria bultzatze aldera Nafarroako Gobernua egiten ari den urratsei buruzkoa.

CONSUELO SATRUSTEGUI MARTURET ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Consuelo Satrustegui Marturet andreak aurkeztutako galdera, gure erkidegoan zinemagintza-industria bultzatze aldera Nafarroako Gobernua egiten ari den urratsei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Consuelo Satrustegui Marturet andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du,

Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Gazteriarako kontseilariak heldu den urriaren 20ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Orain dela aste gutxi batzuk, albiste itxaropen-tsu bat jaso genuen: Estatu Batuetara emigratutako zenbait zinemagile Nafarroan kokatu dira oraintsu, gure erkidegoan hainbat zinemagintza-proiektu garatzeko asmoarekin. NICDO sozietate publikoaren zuzendari kudeatzaile Javier Lacunzak sektore hori bultzatzeko arrazoi nagusi gisa aipatzen zituen pizgarri fiskalak, administrazioaren erraztasunak, hurbiltasun geografikoa eta paisaia-aberastasun handia.

Hori guztia kontuan harturik, Nafarroako Gobernuari honako hau galdetzen diogu:

Nafarroako Gobernua zer urrats egiten ari da gure erkidegoan zinema-industria bultzatzeko?

Iruñean, 2016ko urriaren 13an

Foru parlamentaria: Consuelo Satrustegui Marturet

Galdera, eskola-bide seguruen programei buruzkoa.

MIREN ARANO A ASTIGARRAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Aranoa Astigarraga andreak aurkeztutako galdera, eskola-bide seguruen programei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Miren Aranoa Astigarragak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak Hezkuntza Batzordean ahoz erantzun dezan:

Eskola-bide seguruen programak hainbat herri-tan aplikatzen ari dira mundu osoan zehar. Europan, emaitza bikainak lortu dira; esate baterako, Erroman, Berlinen, Londresen, eta abar.

Espainiako estatuan, gisa horretako programak arrakastaz aplikatu dira Andaluzian, Madrilan, Ara-

goian, Katalunian, Euskal Autonomia Erkidegoan, eta abar. Eta gure erkidegoan aitzindari izan dira, besteak beste, Tuteran eta Tafalla, baina Iruñean eta beste herri batzuetan ere garatu dira.

Programa horiek Francesco Tonucci psikopedagogo italiarrak taxutu eta garatutako "Haurren hiria" proiektua dute oinarri, eta helburu dute programa abian jartzen den herriko neska-mutikoen autonomia pertsonal eta bizi-kalitate handiagoa izatea eskolako joan-etorria bakarrik egiten duten bitartean, eta aldi berean sustatzen da tokian tokiko erkidegoak konpromisoa hartzea parte hartzeko, bide horiek seguruagoak eta iraunkorragoak izan daitezzen.

Hezkuntza Departamentuak eginkizun garrantzitsua izan dezake eskola-bide seguruak ezarri, bultzatu, garatu eta koordinatzean eta programa horien gaineko prestakuntza ematean.

Hori dela-eta, parlamentari naizen honek hauxe galdetzen dut:

Zure Departamentuak inolako jarduketarik aurreikusi al du ahalbidetze aldera hala nahi duten Nafarroako ikastetxe guztiek programa horietan parte hartu ahal izatea?

Iruñean, 2016ko urriaren 12an

Foru parlamentaria: Miren Aranoa Astigarraga

Galdera, bakearen, bizikidetzaren eta arau eta legeekiko errespetuaren kultura bat hedatze aldera hartu beharreko neurriei buruzkoa.

MARÍA VICTORIA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Chivite Navascués andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, bakearen, bizikidetzaren eta arau eta legeekiko errespetuaren kultura bat hedatze aldera hartu beharreko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera

hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Nafarroako Foru Komunitatean azkenaldi honetan gertakizun batzuk izaten ari dira, larritasun handia edo txikia dutenak eta gaindituztat jo behar ziren garaietara eramaten gaituztenak. Horren adierazpen gorena asteburu honetan bertan izan dugu, Altsasun, baina aurretik pintaketak, okupazioak eta bestelako egintza nabarmen batzuk izan dira, babestu beharko gintuzkeen gizarte bati ez dagozkionak.

Nafarroako Gobernuak zer neurri hartuko ditu, hezkuntzaren zein esku-hartze sozialaren arloan, bakearen, bizikidetzaren eta arau eta legeekiko errespetuaren kultura bat hedatzeko, Bakearen eta Bizikidetasunaren Zuzendaritza Nagusiaren bidez eta departamentu batzuekin, Hezkuntzarekin esate baterako, koordinatuz?

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, Nafarroako funtzionarioen soldata igotzeari buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako funtzionarioen soldata igotzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikia dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak ahoz erantzun diezaion:

Gobernu zentralak Espainiako funtzionarioen soldata % 1 igotzen badu, % 1 igoko al du Nafarroako Gobernuak Nafarroako funtzionarioen soldata?

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, jakitekoa zer jarduketa egin dituen edo egiteko asmoa duen Nafarroako Gobernuak, Volkswagen Navarra, S.A. enpresak hemendik aurrera kontratazio prozedura bat izan dezan, publikoa eta irekia, zeinetan nafar guztiek aukera-berdintasuna izanen duten kontratatuak izaterakoan.

CARLOS COUSO CHAMARRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Couso Chamorro jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa zer jarduketa egin dituen edo egiteko asmoa duen Nafarroako Gobernuak, Volkswagen Navarra, S.A. enpresak hemendik aurrera kontratazio prozedura bat izan dezan, publikoa eta irekia, zeinetan nafar guztiek aukera-berdintasuna izanen duten kontratatuak izaterakoan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Couso Chamorro, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun dezan 2016ko urriaren 20ko Osoko Bilkuran.

Zer jarduketa egin ditu eta egiteko asmoa du Nafarroako Gobernuak, Volkswagen Navarra, S.A. enpresak hemendik aurrera kontratazio prozedura bat izan dezan, publikoa eta irekia, zeinetan nafar (zergadun) guztiek aukera-berdintasuna izanen duten aipatu enpresan kontratatuak izaterakoan, Europako zuzentarauak, legedi indardunak eta, halaber, programa-akordioan berdintasunaren gain eta beste batzuetan xedatutakoa betetzeko?

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Carlos Couso Chamorro

Galdera, Hitzarmen Ekonomikoaren negoziatioari dagokionez Nafarroako Gobernuak hartu beharreko neurriei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Hitzarmen Ekonomikoaren negoziatioari dagokionez Nafarroako Gobernuak hartu beharreko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, urriaren 20ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

- Aldaketarako programa-akordioak, hitzarmenaren negoziatioari dagokionez, honako hau dio: "Parlamentuko taldeei Hitzarmenaren negoziatioaren helburuak finkatzen eta Estatuak Nafarroari eskualdatu ez dizkion eskumenak negoziatzen parte hartzeko aukera ematea eta negoziatioetan herritarrekin gardentasunez joka-

tzeko konpromisoa hartzea? Nolako neurriak hartuko ditu Nafarroako Gobernuak, gai hori dela eta?

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako Hego Erriberaren hornidurarako eta ureztaketarako aukeren gaineko azterlanari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urriaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa de Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Hego Erriberaren hornidurarako eta ureztaketarako aukeren gaineko azterlanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarrekin Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak 2016ko urriaren 20ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Hego Erriberaren hornidurarako eta ureztaketarako etorkizuneko jarduketei dago kienez, zein fasetan dago aukeren gaineko azterlanaren prestaketa? Zein dira azterlanaren ezauzgarriak eta hura bukatzeko epeak?

Iruñean, 2016ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

